

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL

ÉPREUVE D'ENSEIGNEMENT DE SPÉCIALITÉ

SESSION 2025

LANGUES, LITTÉRATURES ET CULTURES ÉTRANGÈRES ET RÉGIONALES BASQUE

Mercredi 18 juin 2025

Durée de l'épreuve : **3 heures 30**

*L'usage du dictionnaire unilingue non encyclopédique est autorisé.
La calculatrice n'est pas autorisée.*

Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 10 pages numérotées de 1/10 à 10/10.

**Le candidat traite au choix le sujet 1 ou le sujet 2.
Il précisera sur la copie le numéro du sujet choisi.**

Répartition des points

1^{ère} partie : Synthèse	16 points
2^{ème} partie : Traduction ou transposition	4 points

Sujet 1

Thématique : « Cités et monde rural »

Axe d'étude : « La ville et la campagne dans la littérature basque »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Nola erakutsia da hiria dokumentu hauetan?
2. Nola agertzen da landa eremua dokumentu hauetan?
3. Hiriaren eta landa eremuaren arteko harremana azter ezazu.

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **document 2** depuis la ligne 1 "*Herri handi...*" jusqu'à la ligne 7 "*...hotel handiari*" :

“Herri handi eder bat aurkitzen dugu bidean: Usurbil. Eder eta handi bezain aberatsa izan behar da, bazter zabala du eskuin alderat. Ez gira baratzen. Uste baino urrunago kausturik Donostia, gure otomobilen gidariek akulatzen dute zoinak gehiago bere zaldia. Aurkintze huntako laborantzak ez du bertzalde deus, so gagozkiokenik.

Kilometra andana baten buruko, gure ezkerretarikako bizkarra goratzen da, mendixka bat egiterainokoan. Ohartzen niz hunen gainean eraikia den hotel handiari.”

Document 1

Zaharra zara Bilbo

Neoizko argiak erdi zintzilik daude taberna gainean
urratuen aurpegi den pareta gorrian
zubiak gora zutitzen ziren Portsmouth-eko ontzientzat.
Atzo euskalduna, gaur palazioa
5 eta biharko laino beltzak.

Eta begiratzen zaitut
zuloaren gainetik
zerbait esan nahi dizut
zugan galdu aurretik:
10 zaharra zara Bilbo.

La Vieja sartu da Nerbioi¹ erriberan
oinak urbeltzetan, loreak baineran
mozkortzen nauzu eta ezin zaitut edan
zer esango det ba?

15 Neoizko argiak erdi zintzilik daude taberna gainean
egin nazazu zurea kankak dirauen² artean
gerritik heltzen ondoen dakien beso luzearen jabe.
Guapa³ etorri! Irri batekin ziurtatuta ez al gaude?

Eta begiratzen zaitut
20 zerbait esan nahi dizut
eta begiratzen zaitut
zuloaren gainetik
zerbait esan nahi dizut
zugan galdu aurretik,
25 zaharra zara Bilbo.

Gari eta Jon Maia, "Zaharra zara Bilbo", *Eguzki berritan daude*, 1997.

¹ Ibaizabal ibaia, Bilbon pasatzen dena.

² Irauten duen

³ Guapa : polita

Document 2

Bertze bietan agertzen

Herri handi eder bat aurkitzen dugu bidean: *Usurbil*. Eder eta handi bezain aberatsa izan behar da, bazter zabala du eskuin alderat. Ez gira baratzen. Uste baino urrunago kausturik Donostia, gure otomobilen gidariek akulatzen¹ dute zoinek gehiago bere zaldia. Aurkintze² huntako laborantzak ez du bertzalde deus, so gagozkiokenik³.

Kilometra andana baten buruko, gure ezkerretarikako bizkarra goratzen da, mendixka bat egiterainokoan. Ohartzen niz hunen gainean eraikia den hotel handiari. Begien aitzinean dugu geroztik Igueldo deitzen duten mendinoa; helduak gira Gipuzkoako hiri-nausirat.

Huna, zolan, hiriko karrikak; huna, ezkerretarik, itsasoak berriki ginion artekatik hiriraino sartzen duen muttur kamutsa. Itsasoa bera ez da zeharka baizik ezagun, bere mutturraren erditsutan xutitzen zaion mendoiak⁴ erdi-gordetzen duelakotz, xuxenetik beha legokeonari. Huna oraino, gure eskuinetarik, lerdoin batzu dena jauregiz estaliak; hortarik ederrena lehen mailean, gorrats, luze, itzalpe batzuekin harateko aldetik: erregeren eta hunen udako egoitza.

Tranbiek, otomobilen ugariak, oinkariek usuak, alde orotarik beharrietarat heltzen zaikun burrunba bitxiak, hiriko zer guziek, hots, erne baino erneago ezartzen gituzte eta orozbat erabetzen. Gainera, soldadoz eta hirizainez ebroa⁵ etzakuia⁶ atheratzen zoko guzietarik! Xuxen ibiltzen duke hemen gizonak, nor-nahi izan dadin.

Hiriaren erditsutako karrika-bazter baterat lekurtzen dira gure otoak. Berehala jausten gira, bainan ez oro xede bereko. (...)

Urrats zonbait egin banitza karrika bazterrez... Ikus nitzazke eta adi euskaldun zonbait. Gelditzen da oraino hotarik multxo bat Donostian, atzerritarrek ezin ithoak. Ezagut errexak dira begitartetik, mintzotik, ibileratik; lerdin, ginarri eta zail, gogoz bezala mihiz osoki herrikoi, beren odol garbia ageri dute gizaseme hek⁷. Bainan eriondo, uste baino akituago ere ba, nekez nabil; alki baten hunateko buruan jartzera banaoa.

Jende guti karrikan. Hirizain bat urraska dabil, etxerat joaiteko tenoaren beha hura ere, naski. Jarririk nagon alkiaren harateko buruan ohartzen niz haatik badirela bi gizon, eskuaraz mintzo direnak. So banagote⁸: poneta buruan, ontsasko emanak, Lapurdiko botiges⁹ batzu izan behar dira, edo Amerikano ttipi zonbait. Alde orotar derabiltzate begiak. Khexusko¹⁰ dirudite. Zeren aiduru othe dagozi?

Jean ETCHEPARE, *Beribilez*, 1931.

¹ Bultzatzen

² Leku

³ Honi so (begira) egon gaitezkeenik

⁴ Mendixkak

⁵ Anitz

⁶ Ez ote zaigu

⁷ Haiek

⁸ Haiei so/begira nago

⁹ Dendari

¹⁰ Nahiko haserre

Document 3

Mündü berri batendako.

- Denbora eder denean
oihan, zoko, mendi kaskoetan
gizon bat lo itzalean
begiak zerratürrik, ametsetan
- 5 gizon horrek, zer züan¹ bürüan
nihork ez, nihork ez, ez zakian
irriño bat ezpainenetan
lo, lo, kulunka goxo-goxoan.
- Hiriko jenteak aldiz zainetan
- 10 bizi direlakotz beti lasterkan
goizean eta arratsetan
penitentzia metro-autobüsetan.
- Hameka hilabetez ari dira lanean
gehienak bizi HLM-etan
- 15 bizizale sobera hiri handietan
her²! Her pentsatzen düt memento huntan.
- Mündü berri batentako
jokatzen düt nik oraino
arrima gitean³ lagüntzeko.
- 20 Gaüza hanitx kanbiatzeko
bortüa da sano sano
bada lekü denentako
egon gitean prest lagünak oro
herrian lana eta herria guretako.

Niko Etxart, "Mündü berri batentako", *Nahasteka*, 1979.

¹ Zuen

² Haiei

³ Elkar gaitezen



Ramiro ARRUE, *Place de village basque animée*, vers 1940.

Sujet 2

Thématique : « Engagement et développement durable »

Axe d'étude : « Le monde agricole et la pêche »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Nola tratatuak dira laborantza eta artzaintzaren gaiak hiru dokumentuetan?
2. Zein izan daitezke laborari gazte, edo ez hain gazte batek, ukan ditzakeen desafioak?
3. Zer toki ematen zaio laborantza munduari gure jendartean?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **document 1** depuis la ligne 17 "*Gutxi dira...*" jusqu'à la ligne 23 "*...urte batzuetara*" :

"Gutxi dira ikusita baserrien eta lurren abandonua, kanpotik ekartzen den janari kopurua, segidarik gabe erretiroa hartzen dutenak. Oso gutxi dira baserritar berriak, kontuan hartzen badugu komunitate bati baserri txiki asko egoteak dakarzkion onurak. Tristea da ikustea zenbat gaztek -eta ez hain gaztek- duten baserritar bokazioa edota interesa eta zenbat geratzen diren ezin gauzatu. Tamalgarria da zaharren jakinduriaren galera teknologizazio urrunaren mesedetan.

Ikusteko dago gure etxean zer gertatuko den hemendik urte batzuetara."

Abenduak 28 “Artzain berririk?”

Josebe Blanco emazte artzainak, urte bateko egunerokoa plazaratu du 2023an. Egunez-egun, bere lanak, gogoetak, zailtasunak eta ametsak bildu ditu.

Gaur Aniolen urtebetetzea da. Aspaldian ez dugu ikusi, Kataluniara azkenekoz joan ginenetik.

Gurasoak artzain eskolako ikasleak ziren, eta familia osoa etorri zen etxera Aniolek hiru urte zituela.

5 Oraindik ere presente dago -daude-. Gaur, adibidez.

Jende asko pasatu da etxetik artzain ikastera. Ez nuke asmatuko kopuru bat esaten.

Errazagoa da gogoratzea zenbat ari diren lanbide honetan. Hamar bat lagun. Hiru bikote eta lau norbanako.

10 Batzuen iritziz asko izan dira, beste batzuek esango dute gutxi direla. Uste dut zeri begiratzen diogun, bata edo bestea izan daitekeela.

15 Esango nuke asko direla erreparatzen badiegu: administrazioak -bere aurpegi guztiak aintzat hartuta: osasuna, ogasuna, burokrazia...- jartzen dituen muga eta baldintzei, lurraren eta baserrien prezio espekulatiboei, gertatzen ari den lur metaketari -gutxi batzuen eskuetan-, jabeek duten lur eta baserriekiko atxikimendu ez osasuntsuari -nahiago izateraino erortzea, harriz harri- eta lehen sektorean ditugun lan-baldintza prekarioei eta janariari ematen zaion balioari.

20 Gutxi dira ikusita baserrien eta lurren abandonua, kanpotik ekartzen den janari kopurua, segidarik gabe erretiroa hartzen dutenak. Oso gutxi dira baserritar berriak, kontuan hartzen badugu komunitate bati baserri txiki asko egoteak dakarzkion onurak. Tristeia da ikustea zenbat gaztek -eta ez hain gaztek- duten baserritar bokazioa edota interesa eta zenbat geratzen diren ezin gauzatu. Tamalgarria da zaharren jakinduriaren galera teknologizazio urrunaren mesedetan.

Ikusteko dago gure etxean zer gertatuko den hemendik urte batzuetara.

Josebe Blanco Alvarez, *Hausnarrean, Ardiek egin naute artzain, 2023.*

Artzaina, bortutik etxaldera

Maina Chasseventek artzain soil izatetik etxaldean plantatzeko egiten duen bidea erakusten du 'Artzain soil' filmak. Lucie Francini eta Sabina Hourcadek zuzendu dute. Urte eta erdi bateko filmaketa izan da.

Bi pertsonaia nagusi ditu *Artzain soil* dokumentalak: Maina Chassevent artzain soila, batetik, eta Remi haren laguna, bestetik. Protagonistak lurrik gabeko artzain izatetik etxalde batean plantatzeraino egiten duen bidea kontatzen du filmak, ofizioari lotu irudi ederrez ilustraturik. Bi zuzendari dira: Lucie Francini eta Sabina Hourcade. Proiektua abiatu

5 zutelarik, bi zuzendarien ideia zen beste bi pertsonaiarekin abiatzea: lurrari lotua den bat eta itsasoari beste bat. Badira lau urte ideia hura ukan zutela, eta dokumentala errealitate desberdinei egokitu behar izan dute bi egileek. Heldu den astean izanen da estreinaldia Ipar Euskal Herrian.

Lehen ideian, elikagaien katean oinarritzko ofizioetan den prekaritatea erakustea

10 zuten xede. Baina dokumentalgintza ere prekarioa delako, aldatu egin behar izan zuten hastapeneko proiektua, Sabina Hourcade zuzendariaren erranetan: «Arrantzale anitzekin bildu eta gero, batekin abiatu ginen, baina zaila zen filmaketa oro, azken momentuan hitzartu behar zirelako. Lau urte iraun du lanak, eta dokumentalaren mundua ere prekarioa da: lau urteko lan hori ez da pagatua izan». Dokumentalak zenbait laguntza ukan ditu

15 geroztik, baina bi zuzendariak beren ofizioa egin behar zuten, film xedeaz gain. Artzaina da protagonista azkenean, eta filmaketa epe luzean egin da, urte bat eta erdiz bizpahiru aste oroz joan baitira Chasseventengana haren ibilbideari segitzera. (...)

Etxaldean plantatzea

2020ko maiatzean zuzendariak eta artzainak elkar ezagutu zutelarik, artzain soila

20 zen Chassevent. Orduan hasi zen aipatzen etxalde batean plantatzeko xedea zuela, eta zinemagileek hori gai nagusitzat hartzea deliberatu zuten. Laborantzako belaunaldien segida, lurrak atzemateko zailtasuna, etxebizitzaren inguruko arazoak...; elkarriketa eta off bozik gabe ere, gai horiek markatzen dute Chasseventen instalaziorako ibilbidea.

Zuzendariak artzainarekin garatu dute kontakizuna, elkarrekin deliberatu dute zer

25 erakutsi ere, etxebizitzaren kasuan korapilo bat izan delako jabearekin, Francinik oroitzen duenez, jabeak alokatu bai baina etxea ez duelako saldu nahi izan: «Gaur egunean ere egoera berean dira, eta eztabaidak ukan ditugu, hori erakutsi behar zenez, ez zenez haren kalterako izanen...». Gogoeta luzeek ekarri dute, azkenean, gaia plazaratzea. «Mainak eta Remik filma ikusi dute, eta kontent dira», Francinik argitu duenez. Bi zuzendariak nahi zuten,

30 Franciniren erranetan, erakutsi instalazioa ez zela «istorio eder bat bakarrik».

Istorioa ez da etxaldean plantatzeko zailtasunetan soilik zentratzen; ardiak eskuz jeztea, kabalak bortura eramatea, gasnaren ekoizpena, etxaldearen transmisioa edo Remi bikotekidea eskukaldiak ematen ageri dira, aldian aldi, musikaren eta isiltasunen erritmoan. Gero, haurdunaldiak eta haur baten sortzeak, pertsonaia berri bat gehitu du artetik

35 planoetan. (...)

Joanes Etxebarria, « Artzaina bortutik etxaldera » *Ipar Euskal Herriko hitza*, 2024/04/26.

Adur Larrea, "Laborantza", 2024/01/31, Argia.



<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2857/laborantza/>